

ITXASO MARTIN ZAPIRAIN



# PUNTO BOBO

n a r r a t i b a

erein

PUNTOBOBO

n a r r a t i b a • 154

ere in

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2024ko urrian*

Azala eta liburuaren diseinua:

Landa Beltza

Maketazioa:

Erein

© Itxaso Martin Zapirain

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-998-7

L.G.: D 937-2024

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Ulzama

Altutzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

[contacto@ulzama.com](mailto:contacto@ulzama.com)

[www.ulzama.com](http://www.ulzama.com)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Itxaso Martin Zapirain

# PUNTOBOBO



*Mara, Emma eta Jakes, zuei,  
ama izateko hamaika modu daudela  
erakusteagatik.*

## I

—Ez dakit zergatik ez dituzun maizago egiten babarrunak, ama. Oso onak ateratzen zaizkizu.

—Bai, ikusten dut! Ni aspertu egin nintzen. Txikitan babarrunak besterik ez nituen jaten... Hauek Rosik ekarri dizkit, badakizu... bigarren pisuko bizilagunak. Arabako ez dakit zein herritara joaten dira tarteka senarraren arreba bisitatzera. Oso gaixo omen dago. Eta beti ekartzen dit zer edo zer. Ez dakit zergatik egiten duen hori, ez dugu inoiz harreman esturik izan... Oraingoan babarrunak tokatu dira. Arrozkarak omen dira, hala dute izena. Txiki-txikiak direlako ziur aski.

—Ba eman eskerrak nire partez.

—Emango dizkiot, ziur galdetzera etorriko dela eta; usaimena garatuagoa duen pertsonarik ez dut ezagutu nik.

—Ama!

—Ez, ez egin barre. Bizilagun bakoitzaren eguneroko menuak asmatzeko gai da.

—Beno, ez duzu askarietan ezkutatzeko moduko sekreturik.

—Pasako piperrak, mesedez?

—Bai, tori. Atzo eskolatik deitu zidaten.

—Maddiren eskolatik?

—Bai, irakasleak.

—Eta?

—Ba kezkatuta utzi ninduen.

—Zer ba?

—Ez zidan telefonoz gehiegi azaldu nahi izan, baina froga batzuk aipatu zizkidan. Gure baimena behar dutela eta... Ez dakit, bere adinerako gutxi hitz egiten duela eta harekin komunikatzeko arazoak dituela esan zidan. Ez nion dena ulertu. Aurrez aurre hobeto azalduko zidala.

—Lotsatia da oso...

—Bai, nik ere hori esan nion, baina dagoeneko bost urte dituela eta ulermena ere ez ote duen besteek baino gutxiago garatuta. Horrelako zerbait aipatu zidan. Ez dakit.

—Hartu piper gehiago, gutxi jan dituzu.

—Ez ditut gehiago nahi!

—Ui, suminkor zaude gaur.

—Ez da hori, baina gauza serio bati buruz ari naiz, eta piperrekin moztu duzu elkarrizketa.

—Barkatu, neska..., ez dut asmo txarrez egin... Zertaz ari zinen?

—Ikusten? Gogoratu ere ez zara egiten!

—Bai, bai... Froga batzuk aipatu dituzu, baina oraingoz ez dakizuela ezer...

—Bilera bat egingo dugu irakaslearekin eta pentsatzen dut orduan zehaztuko digutela dena.

- Ba ordura arte lasai, orduan! Denak berdin jarraitzen du.  
—Berdin?  
—Beno, gertatzen ari dena jakin baino lehen ezin duzu aparteko ezer egin. Zer edo zer egin dezakezunean, kezkatu eta ekin; bitartean ahaztu!  
—Ez dakit nola lortzen duzun.  
—Lortu zer?  
—Beti denaren gaineratik egotea.  
—Ongiaren eta gaizkiaren gaineratik?  
—Ez naiz txantxetan ari, ama.  
—Ni ere ez.  
—Ironiaz esan duzu.  
—Ez zen nire asmoa. Laguntzeko esan dizut. Noiz duzue bilera?  
—Datorren astean.  
—Ja... Eta Sebasek zer dio?  
—Sebasi ez diot ezer esan...  
—Hobeto! Zertarako hura ere urduritu?  
—Nola hobeto?  
—Portzierto..., zure nebak deitu zidan atzo.  
—Ikerrek? Non daude orain?  
—Bangkokera iritsi ziren atzo. Eta nekatuta daude, baina pozik. Bi aste geratzen zaizkie, eta esan zidan azken unera arte aprobeztatzeko asmoarekin dabiltzala.  
—Batzuk bai, ongi bizi dira...  
—Beno, bakoitzak bere lehentasunak ditu, Joane.  
—Nire lehentasuna izanda ere, lanean ezingo nuke horrelako opor luzerik hartu.  
—Aukera edukita egingo ote zenukeen, hori da kontua!



—Jakina, baietz!

—Inoiz ez zaizu gustatu etxetik oso urrun eta batez ere etxetik kanpo denbora luzez egotea.

—Ez da gustu kontua, aukera kontua da.

—Eta beti aitzakia aproposa izatearena.

—Zu ere ez zara ba gehiegi atera...

—Nahi ere ez.

—Ba beti ibiltzen zinen kexada... Bi seme-alabekin oporetara joatea ezinezkoa zela, oso garestia zela...

—Baina ni ez nintzen ari urruti joateaz, ez denbora luzez. Inguruko edozein tokitara joateko ere ez nuen nahikoa xoxik. Nik ba-ka-rrik ordaindu behar nuen dena. Eta, orain, haur batekin, konturatuko zinen gastuak biderkatu egiten direla, ezta? Ez da bat gehiago...

—Bai, hori egia da. Baina gure kasuan, Sebasena eta nirea batuta, ez da nebak duen soldatararen iristen.

—Zer duzu gaur zure nebarekin?

—Ezer ez. Zuk atera duzu gaia!

—Nik? Atzo deitu zuela eta gustura zebiltzala, besterik ez nizun esan nahi, eta begira nora iritsi garen.

—Noiz datoz bueltan?

—Bi aste barru. Baina ez dakit zein egunetan zehazki.

—Bueltan egingo dugu bazkariren bat, ala?

—Bai, zure urteak ere ospatu beharko ditugu.

—Ama, nire urtebetetze eguna bi hilabete barru da.

—Bi aste barru iritsiko badira... eguna jarri, bat eta beste... bi hilabete baino lehen, ez dugu denok elkartzeari lortuko!

—Denon aldetik gehiago jarriko bagenu, maizago elkartuko ginatke, ez gara hainbeste.

—Bai, baina beti duzue zer edo zer egiteko. Zuen agendak ez dira, preseski, errazak.

—Noiz zoaz zu lagunekin Cambrilsera?

—Jesus! Tokitan dago hori oraindik! Urrian joan ohi gara, lau hilabete oraindik... Gainera, aurtengoa kolokan dago.

—Eta hori?

—Esan nizun Marijose ez dagoela oso ongi, ezta?

—Ez, ez nekien ezer. Orain urte batzuetakoa bai, hori kon-tatu zenidan, baina gaituta zuela uste nuen...

—Hala zuen bai, baina azken analisisetan berriz ere agertu omen zaio zerbait, eta zer egin aztertzen ari dira.

—Eta nola dago bera?

—Ez dut zuzenean berarekin hitz egin, baina, antza, ez zuen espero eta kolpea hartu du.

—Ez diozu deitu?

—Ez.

—Eta hori? Haserre zaudete?

—Ez, ze ba?

—Lehen oso lagunak zineten..., maiz hitz egiten zenuten...

—Beno, oraindik ere lagunak gara, baina ez dut tarterik aurkitu deitzeko.

—Denbora librea, besterik ez duzu eta!

—Aizu! Nik ere neure gauzak ditut egiteko...

—Bai, baina telefono dei bat egiteko minutuak behar dira, ez orduak.

—Bai, baina momentu egokia aurkitzea da kontua.

—Eta ez duzu aurkitu?

—Orain dela bi egun jakin nuen azken analisisen emaitza ez zela ona izan! Datorren astean deituko diot!

—Haserre zaude!

—Ni? Ez! Babarrun gehiago nahi dituzu?

—Bai, baina ez bete goraino platera...

—Eltzean daudenak tuper batean jarriko dizkizut. Sebasek eta Maddik gustura jango dituzte.

—Sebasek batez ere! Azkenaldian lanean ez du bazkaltzeko tarterik izaten, eta gauez, afalorduan, balea bat ere jango luke.

—Ez dut ulertzen nola iraun dezakeen egun gutzia ezer jan gabe. Horrela etortzen dira gero estomagoko minak eta gaixotasunak. Ogitarteko bat eta fruta pixka bat. Hori gutxienez eraman beharko luke.

—Egunero ogitartekoa jatea ere ez da ba oso ona izango...

—Ogi onak daude ba..., mota askotakoak... Ez dakit nork deabrutu duen orain ogia. Modak dira denak! Erotu egingo gaituzte!

—Bera horrela ongi moldatzen da eta... Ni ez naiz horretan sartuko, egin dezala berak nahi duena.

—Ez daukate janaria berotzeko mikrouhin-laberik?

—Bai, kontua ez da jana, ama. Arazoa, denbora da. Lanez gainezka dabil, eta bazkaltzeko daukaten ordu erdia ere horretan ematen du, lanean, ez jaten...

—Ba esaiozu nire partez ondorioak dituela horrek epe luzera!

—Heldua da eta badaki hori.

—Gero etortzen dira damuak eta bestelakoak. Zuek ikusiko duzue... 40 urterekin oraindik haurrak zaretela uste duzue, eta gero gerokoak...

—Sebasek 50 ditu.

—Gainera hori! Ez esan gehiago, sutu egingo naiz.

—Jarriko dizkidazu gero babarrunak, ama, eseri eta bukatu platerean duzuna.

—Benetan, ez dut ulertzen.

—Jakin izan banu horrela jarriko zinela, ez nizun ezer esango. Hurrengo baterako badakit: dieta konturik ez amarekin.

—Bai... nola da orain jende askok egiten duen hori... Ez dakit zenbat ordu ematen dituzten ezer jan gabe...

—Aldizkako baraua?

—Bai, hori... baina nori bururatu zaio hori ona izan daitekeela? Ez dakit zenbat orduan ezer jan ez, eta gero zortzi orduan goraino jarri!

—Goraino ez. Hori ere kontrolatu beharra omen...

—Kontrolatu?! Nola? Nik gosaldu gabe ez dut etxetik ateratzeko energiarik izaten... Ez esan niri hamasei orduz ezer ez jatea dieta orekatu eta egoki baten eredia denik... ez dut sinesten... famaturen batek jarri du modan, eta, tiiiiira, denak lerdoak bezala atzetik...

—Beno, ez zuk ez nik ez dugu horrelakorik egiten... beraz, lasai, ez dago haserretu beharrik.

—Arrazoi duzu. Zertaz ari ginen?

—Sebasen bazkalorduz, baina horrek eraman gaitu baraualdietara eta...

—Zer moduz zu lanean?

—Ongi. Beti bezala, nobedaderik gabe. Beno, bai, orain lankide berri bat sartu da, eta hortxe gabiltxa nola lan egin erakutsi nahian, baina garbitzeko «bere metodo propioak» omen ditu eta ez da erraza izaten ari...

—Beno, garbitzeak ere ez du beste munduko sekreturik... sota-caballo-rey eta punt...

—Ama, badakit ez zaizula inoiz gustatu nire lana, baina zuk ongi jakin beharko zenuke baduela bere konplexutasuna.

—Ea, ez da ez zaidala gustatzen... ezinbesteko lana da, baten batek egin beharrekoa, baina zuretzat...

—Ez zaizu inoiz nahikoa iruditu.

—Beno, besterik ere egin zenezakeen.

—Baina nik ez dut nahi.

—Ez esan hori denik zure lehen aukera, ze hori bai ezin dudala sinetsi.

—Lehen aukera ez, nire ametsa... ere ez. Baina gustura nabil, eta nire lana probetxuzkoa dela sentitzen dut, eta hori ezin du mundu guztiak esan. Sebas burokrazia artean galduta ibiltzen da kasik beti, eta etxera iristen denean zalantza egiten du ezertarako balio ote duen egin duenak.

—Lankide berri horrena kontaktzen ari zinen...

—Bai, lana bere erara egin nahi du, eta, badakizu, ospitaleko laborategietan garbiketak oso kontrol eta prozesu zorrotzak jarraitu behar ditu.

—Ez dakit, baina imajinatzen dut...

—Beno, ba hori ikasi behar izaten da, nondik hasi, ordena, garbiketa produktuak bereziki aukeratzen dira, desinfektatzeko... esterilizatzeko...

—Ba baten batek zerbait esan beharko dio.

—Horretaz ari nintzen ba... Esaten diogu, baina ez du jaramonik egiten. «Bere metodoak» direla esaten du, eta zer egin dezakegu? Behartu?

—Arduradunari esan!

—Salatu?

—Horrela deitu nahi badiozu... Zer bestela?

—«Gure metodoak» hobeak direla konbentzitu nahian ari gara, hasteko.

—Eta bitartean zerbait gaizki desinfektatzen badu? Horrek ondorio larriak izan ditzake, ezta?

—Bai, baina laborategian sartzea ez da hasieratik egiten uzten dizuten zerbait, oraingoz ez da hain espazio delikatueta lanean ari.

—Eskerrak...

—Deigarria egiten zait, oraindik ere ohitura hori duzu...

—Zein?

—Aitaren egitearena.

—Bai. Beste garai batekoa naiz ni.

—Baina askotan egiten duzu.

—Batzuetan konturatu gabe ateratzen zait. Ez egin barre... Ezertan ez sinesteak ere ez dut uste gauza onik ekarri duenik. Ingurura begiratu besterik ez dago dena zein ustelduta dagoen ikusteko.

—Eta ni nintzen gaur umore txarrez zegoena... Ez duzu ale bat bera ere tente uzten!

—Arrazoi duzu, barkatu...

—Iritsi naizenean pozik zeundela iruditu zait ba... Esan dudan zerbaitek egin dizu min?

—Ez, neska.

—Nebarenak?

—Ez...

—Nebarena da. Ezin da hari buruzko ezer esan etxe honetan, badakit zure seme kutuna dela.

—Ez esan txorakeriarik.

—Lasai, ama, garai batean mina egiten zidan, baina orain guztiz onartua daukat, eta esan ere esan dezaket inolako jelskortasunik sentitu gabe.

—Ez da hori...

## HAURTZAROA

Jaio aurretik jakin zuen Amak barruan zeraman haurra ez zela besteak bezalakoa izango.

Sentsazio bat zen, ez intuizioa.

Haren tripa ez zen gainerako haurdunena bezalakoa. Txikia zen. Eta ez zen guztiz borobila. Barruan osatzen ari zen izaki txikia gutxi mugitzen zen, batere ez ez esatearren.

Baina beste askorentzat kezkarriak ziren seinale haiek ez zuten Ama arduratzen, nahikoa zuen eskua sabelean jartzea haurraren taupada erritmiko indartsuak nabaritzeko. Eskua mugitzerainokoak izaten ziren, bereziki Ama etzanda zegoenean.

Taupa-taupa.

Taupa-taupa.

Bizpahiru aste zeramatzan Amak haurraren esperoan, gutxi gorabeherako data bat zuen, eta dezentete atzeratzen ari zen. Momentu batean inoiz aterako ez zela ere pentsatu zuen.



Etxeetara erditzen laguntzera joaten ziren bi emagin: Josefina ile gorri kizkurduna eta haren alaba. Biak ohartarazi zituen amaierara iritsia zela eta edozein momentutan hasi zitezkeela erdiminak.

Herrian ez zuen inork horrelako urriko-egun berorik gogoratzten. Hezetasun usaina zerion egun horietako bat zen.

Hogeita hamazazpi gradu gorputz barruan, eta hogeita hamazazpi gradu kanpoan. Haurra ateratzeko egunik aproposena.

Ondo ote zegoen jakiteko Josefina eta alaba bisitan joan zitzaizkion unean bertan bota zituen urak Amak. Emaginak haren etxean geratu ziren zain, erdi-aurreko uzkurdurak hasi ziren arte.

Haurrak, jaiotzeko, barrua eta kanpoa bereizezinak egiten zituen hozberoko eguna aukeratu bazuen ere, hainbat ordu eman behar izan zituen Amak bultzaka. Uzkuradura gogorretan burua ikusten zioten, baina berehala sartzen zen berriro ere gordelekura.

Indar handiagorekin egin behar duzu bultza, esaten zion Josefina azkena iruditzen zitzaion uzkuradura iristen zen bakoitzean. Urduri zegoen eta ahalak eta leherrak egiten ari zen dena kontrolpean zuelako plantak egiteko, ez zuen Ama urduri jarri nahi.

Alaba, bitartean, isilik zegoen, ofizioa ikasten ari zen eta aurrean zuena bere hirugarren erditzea zen, baina bazekien haurrek ezin ziotela denbora luzean eutsi horrelako egoerei eta amak sabelaren eta bularraren arteko tartearen gainean jartzeko eskatu zionean agindutakoa bete zuen. Dardara batean. Baina bete egin zuen.

Ama sufrikario batean zegoen.  
Izerditzen ari zen modua zen bereziki deigarria, ohea blai zegoen.

Lurreraino iristen ziren ur-tantak.

Klin eta klan, entzuten zen.

Hurrengo uzkurdua zetorrela antzematen zuenean, Amak gogor heltzen zituen koltxoiaren ezker-eskuineko muturrak eta ahal zuen indar guztiarekin egiten zuen bultza.

Aaaaaaaaaaaaa!

Halako batean, haurrak uhateak zeharkatu zituen.

Sortzainak ordura arte bizi izan zuen erditzerik luzeena izan zen, eta kasik bortxaz atera behar izan bazuten ere, haurra isilik jaio zen.

Ez da *normala* izango.

Horrela definitu zuen medikuak haurra, urtea bete berritan. Amaren sabelean denbora gehiegi pasatu izanari leporatu zizkion hasierako hilabeteetan izan zituen zailtasun txikiak.

Atzerapenak.

Zuk ulertzeko, dena berandu egiten duen haurra da, esaten zion aditu plantak eginez.

Eta horrelako azalpenak ez ziren medikuarenean geratzen. Horregatik, bere denbora behar du, besterik ez, erantzuten zion Amak txikiaren gaineko galderak egiten zizkion edonori.

Jakitun zen batzuk zutik edo oinez zebiltzan bitartean, bere haurrak ez zuela horrelako gauza *konplexurik* egiteko imintziorik txikiena egiten. Eta azkenean, azalpenak emateari utziko ziola erabaki zuen.

Haurra lasai egoten zen, inguruari begira-begira eta jabal; egiten zuen mugimendurik aipagarriena besoak eta hankak mugitzea zen. Orain mantso, orain azkarrago. Denak modu eta erritmo ezberdinetan. Harmonian. Mugimendu kaotikoan.

Baina haurra apartekoa egiten zuena, aurpegiari marraztua zuen betiereko irribarrea zen. Ez zegoen munduan berak baino irribarre zabal, eder eta iraunkorragoa zuen inor. Hain zen nabarmena, Amak haurraren ongizatearen neurgailu erabiltzen baitzuen.

Barre egiten badu, ongi dagoen seinale.

Hori ez da nahikoa, ohartarazten zion medikuak jakitun plantak eginez.

Urtebetetik aurrera egin zizkion froga guztietan ere atzerapen nabarmena zuela errepikatzen jarraitu zuen.

Azkenetako, Amaren erresistentzia etsipen bihurtu zen.

Eta etsipena, amorru.

Eta amorrua, urruntze, medikuarenera joateari utzi baitzion.

Pixkanaka, haurrak oinez ibili artean aurreikusten zaizkien urrats guztiak egin zituen.

Kroketarena egitea.

Katuka ibiltzea.

Zutik jartzea.

Eta, azkenik, bi hanken gainean oreka mantentzea.

Egia da, ez zuen inoiz haurrei eskatzen zaien trebetasunarekin egin, baina Amaren ikuspuntutik, irabazitako erronkak ziren. Eta, garrantzitsuena, irribarrea galdu gabe lortu zituen.

Amaren erabakia irmoa izan zen eta sukarrrik altuena izanda ere ez zuen inoiz sendagilearenera eramán. Haurra sutan egon zitekeen, begiak egun luzez ezin irekita igaro, baina Amak ez zion aditu plantak egiten zituenari deitzen. Bera moldatzen zen, etxean, oihal hezeekin eta bestelako erremedioekin, burua erretzen zioten helgaitzak heldu arren.

Inork ez zuen jarrera hori ulertzen.

Senarrak ere ez, baina zeuk ikusiko duzu batekin baino ez zuen adierazten bere harridura.

Denborarekin, haurrak gaixotzeari utzi zion, horrela inork ez zituen zalantzan jarriko Amaren jokaera eta medikuarenera ez joateko erabakia. Hain tematia izan zen haurra bere jarrean, non ez baitzuen berrogei urte geroago hil zen arte mediku bat bera ere ikusteko arrazoirik eman.

Ama ezin zen harroago sentitu.

Indarrak eta pertseberantziak salbatuko zuten haurra.

Txikiari eskolara joateko garaia iritsi zitzaionean hasi ziren auzotarren txutxu-mutxuak ozenago entzuten. Haurraren sendotasunean zuen konfiantzak bultzatu zuen Ama hainbat adinetako haurrak batera zeuden gelara eramatera. Bakoitzak bere erritmoa darama eta dituen urteei egokitutako ariketak egiten ditu, azaldu zion irakasleak. Baina berehala geratu ziren azalpen horiek ezerezean.

Egia esan, Amak hasieratik hartu zion traza txarra irakasleari. Sudur luze puntazorrotza zuen, senarrak bezalakoa, eta horrelako sudurra zuten pertsonak ez-fidatzekoak zirela iruditu zitzaizkion beti. Sudurra tokirik txikienean sartu zezaketen eta Amari bere kasa bizitzea gustatzen zitzaion.

Ez zuen denbora gehiegi behar izan bere haurra begirada guztien jomuga zela konturatzeko. Egoera horrek sortzen zion tripa-janari eutsiz, muga bakarra jarri zion bere buruari: haurra eskolatik irribarrez ateratzen zen bitartean, ez zen bera izango eskolara joatea eragotziko ziona.

Bere denbora behar du, besterik ez, gogorarazten zion bere buruari gertatzen ari zenari buruzko isil-hizketa luzeak izaten hasi zenean.

Ama isolatzen hasi zen. Eskolaren kanpoaldean haur txikienen bila joaten zirenekin ez zen nahasten, eta haurra ateratzen zenean ere eskutik heldu eta berehala eramaten zuen etxe aldera.

Pauso berbera eramatera jolasten ziren. Haurrak agintzen zuen, eta Amak pauso aldaketa guztiei adi egon behar izaten zuen. Nahasten zenetan, algarak eskolatik entzuteko modukoak ziren.

Txiki bila joan zen egun horietako batean, irakasleak traizioz harrapatu zuen eta hainbat astez saihestutako elkarrizketa izatera derrigortu zuen.

Begira, ez dut uste berarentzat hau toki egokia denik, esan zion irakasleak Amari behartutako adeitasunez.

Eta esan zion haurrak apenas esaten zuela hitzik.

Eta esan zion haurrak ez zuela gaitasunik bertan irakasten zien ezer barneratzeko.

Eta esan zion alferrik zela egunero hara eramatea.

Eta esan zion ezin ziola sarrera ukatu, baina bere moduko batentzat onena zela egokiagoa zen toki batera eramatea.

Eta beste hainbat gauza ere esan zizkion, baina hortik aurrerakoak ez zituen entzun.

Irakasleak ahoa mugitzeari utzi ziola ziurtatu zuenean, aurretik jarritako muga gogorarazi zion bere buruari: haurrak erabakiko du noiz arte jarraitu eskolan, ez beste inork.

Baina hozberoa hogeita hamazazpi gradura iritsi zen urriko egun heze batean Amak bere buruari jarritako muga hautsi zuen.

Ohi baino lehenago joan zen eskolara haurraren bila, eta eraikin zaharraren leihotik begira-begira jarri zen.

Eskolak hiru solairu zituen, baina etxabea bakarrik erabiltzen zuten, kaleko mailan geratzen ziren leihotatik lehen begi kolpean ikusi zuen haurra. Gelaren erdi-erdian zegoen eserita, eta une batez Amari irribarrea atera zitzaion aurpegia alderik alde zeharkatzen.

Baina derrepentean ikasgelan gertatzen ari zenaz ohartu zen.

Haurra erdian zegoen eserita, bai.

Irribarrez, bai.

Baina gainerako gelakide gehienak inguruan zituen korrika eta barrez. Ongi pasatzeaz gain, isekaz ari zitzaizkion, eta paperezko bolatxoak edo hegazkin formakoak botatzen zizkieten. Batez ere, handienak izanagatik zaharrenak ez ziren bi haur ziren akelarrea gehien berotzen zutenak.

Amak leihoa jo zuen.

Gogor.

Bere barruko organo guztiak sutan zituen.

Kiskaltzen.

Zenbat denbora zeramaten bere haurrari horrelakoak egiten?

## AURKIBIDEA

---

I	-	9
HAURTZAROA	-	19
II	-	47
AHIZPAK	-	57
III	-	83
AMAREN HERIOTZA	-	91
IV	-	111
MAITALEA	-	123
V	-	139
DOLUA	-	149
VI	-	169